

# aitzari

**LAUKIZ eta MARURI-JATABEKO EUSKARA ZERBITZUA**

2010eko uztaila • 28 zenbakia



**UDAGIROA**

## INGURUMENA NAGUSI UDALEKUETAN



Berriro etorri zaigu uda eta berarekin batera opor garaia, jakina. Ohikoa denez, Laukiz eta Maruri-Jatabeko udalek, udalekuak antolatu dituzte, umeei, uztailan behintzat, ahalik eta ondoen pasatzeko euskaraz. Laukizko ordutegia astelehenetik barikura 10.30etatik 13.30etara izango da. Maruri-Jataben berriz, bi aukera egongo dira: 9etatik 14etara, ala 10.00etatik 14.00etara. Hala ere, bai batean bai bestean ingurumena eta partehartzea izango dira gai nagusiak. Azken urte hauetan hainbeste arrakasta izan dituzten ekintzak (trukemerke, sukaldaritza, gurpil eguna, san fermin...) berriro errepikatu arren, ekintza berriak ere izango ditugu. Gurasoei pasa den ekainaren 21ean eta 22an batzar informatiboetan adierazi zitzaizen bezala, umeei "herria aldatzeko" aukera izango dute, (paporean behintzat) herria hobetzeko proposame-

nak egingo dituzte eta. Beharbada buzoi bereziak ere ikusiko dituzue zenbait lekutan, umeei ere jarriko dituzte herrian zehar herrikoen iradokizunak jasotzeko. Txango txikiak ere ez dira faltako, Garaizar errota, eta Amaia negutegiak bisitatuko baitituzte. Herriko batzuek egiten duten bezala, ortu berezia egingo dute: erein, zaindu eta azken egunean produktuak jaso... Jokuak, jaiak eta igerilekua ere ezin ahaztu.

Orain eguzkia eta eguraldi ona baino ez da falta.

**Ondo pasa neska-mutilok!**





# esaɔdazu euskaraz ɔimelo en euskera



Alkarbidek –Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak- koordinatuta, aurten ere Laukiz eta Maruri-Jatabeko familiengana heldu nahi izan dugu kanpaina honen bidez.

“ESAIDAZU EUSKERAZ” Kanpaina honen helburua euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzeak duen garrantzia nabarmentzea da.

Horretarako, ume jaioberriak eta 1-5 urte bitarteko umeak dituzten gurasoei umearen ingurune hurbilean euskara sustatzeko aholkuak eskainiko zaizkie; abestiak, euskarazko oinarrizko hitzak eta esamoldeak ikasteko KU-KU liburuxka CDarekin eta hainbat opari (adur-zapia eta askari poltsa) ere banatuko zaizkie. Jaioberriei, honetaz gain beste CD bat oparitu zaie “handitzen-handitzen” izeneko.

## Kanpainaren edukiak honakoak izan dira:

Ume jaioberriak dituzten gurasoentzat:

**Gutuna:** Alkateak sinatutako gutuna. Gutun horretan gurasoei zorionak emateaz gain, euskararen transmisioak duen garrantzia azaltzen da.

**Hiru-orrikoa:** Umearen ingurune hurbilean euskara sustatzeko aholkuak batzen ditu. Aholku horiek gurasoen hizkuntza-gaitasunaren araberakoak dira.

**Oparia:** Adur-zapia.

## Handitzen-handitzen CD-a

1-6 urte bitarteko umeak dituzten gurasoentzat:

Ume jaioberriak dituzten gurasoei moduan, **gutuna**, aholkuak batzen dituen **hiruorrikoa** eta oparia

bidali zaizkie, baina kasu honetan **askari-poltsa** izan da oparia.

Material horri laguntzeko KU-KU liburuxka berrargitaratu da, liburuxka hau orain dela lau urte argitaratu zen lehen aldiz, baina izan duen harrera ikusita, aurten berriro argitaratzea erabaki da. Liburuxka honetan, gurasoek euren seme-alabekin hitz egiteko oinarrizko euskarazko hitzak eta esamoldeak batzen dira, baita umeentzako abestiak.

Liburuxkarekin batera, CDa ere banatuko da. CD horretan liburuxkan agertzen diren abestiak batzen dira, gurasoek letra aurrean dutela umeekin abes- teko.

## ESKOLA AGENDA

Datorren irailean Laukiz eta Maruri-Jatabeko lehen hezkuntzan dabilen eskolameek opari berezia izango dute: ESKOLA AGENDA berezia. Bertan etxeko lanak, guraso eta irakasleen oharra eta beste hainbat kontu egin eta aurkitu ahal izango dituzte. Helburua euskararen transmisioa da bizitzako arlo guztietan.

Eskola-agendak 10 hilabete izango ditu, irailean (ikasturte hasieran) hasi eta ekainean (ikasturte amaieran) amaituko da. Bizkaia 10 eskualdetan zatitu dugu eta eskualde bakoitzak bere hilabetea eta bere ipuina izango ditu. Ipuinak kontatuko dituen pertsonaia Anboto Mari izango da, herriz herri Bizkaiko zenbait leku ezagutzeko aukera emango diguna. Laukiz eta Maruri-Jatabe otsailean agertuko gara. Testuak Antton Irustak egin ditu, marrazkiak berriz Enrique Morentek. Kanpaina hau Alkarbideren birtartez burutu da (Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilgunea) eta 11 udal eta mankomunitate batek hartu dugu parte.



## ARGAZKI LEHIAKETA 2010

Hirugarren ediziora heldu gara aurten Laukizko argazki lehiaketan. Aurten ere Laukizko bazterrak ezagutu ahal izan ditugu: batzuk ezagunak, beste batzuk ez hainbeste, baina guztiak ikustekoak. Aurten 45 argazki aurkeztu dira eta oso laukiztar gutxi ikusi ditugu egileen artean. Epaimahaia pasa den ekainaren 21ean bildu eta honako erabakia hartu zuen:

**1go saria:**  
**“El rincón de Garbi”**  
**DAVID HUMARAN**



Laukiztarrari akzesita: “Verdes olas” JUANMA LEGORBURU

Ohikoa denez, ekainaren 23an, San Joan sua piztu baino lehen, aurkeztutako argazki guztiak ikusteko aukera izan genuen Atxispén eta ondoren erabakia ezagutaraztera eman zen. Udaleko alkate ordea den Salva Artazak sarian banatu zituen.

Apurka-apurka bagoaz gure argazki Albuma osatzen, ea datorren urtean Laukizko jende gehiago aurkezten den!



## EUSKARA LIBURUTEGIRA PROGRAMA

Hilabete hauetan zehar, (otsailetik ekainera) ekintza berezi bat izan dugu bai Laukiz, bai Maruri-Jatabeko liburutegietan. Bi lekuetan jende ugari bildu da: Laukizen, oro har, jende gehiago eta apur bat nagusiago, Jataben berriz, ume txikitxoagoak. Hilabete hauetan, kamisetak margoztu, liburutegi bat nola antolatzen den ikasi dute eta azkenez, udan ere irakurtzea dibertigarria dela gogorarazteko mantelxoak margoztu dituzte. Guztiak dibertigarriak eta umeek oso ondo pasatu dute.

Irailean berriro itzuliko gara tailerrekin eta zuek guztiok parte hartzea espero dugu (umeak eta familiak).

**UDAN ERE, IRAKURRI EUSKARAZ!**



## KARTEL LEHIAKETA

Urtero bezala, Maruri-Jatabeko jaiak iragartzeko kartel lehiaketa izan dugu. Aurten inoiz baino kartel gehiago jaso dira eta erabakia ez da erreza izan. Beti bezala, bi kategoriatan banatu da: 14 urte baino berekoentzat eta bestea 14 urtetik gorakoentzat.

Pasa den ekainaren 29an, epaimahaia bilduta honako erabakia hartu zuen:

**NAGUSIAK:** NAGORE RODRIGUEZ DIEGO  
"Jata mendia Euskadiko mendirik ederrena da"

**TXIKIAK:** XABIER GARCIA SARRIA  
"Armarria jaietan"

Sari banaketa, San Lorenzo jaietan egingo da.

Gogoratu Xabierren kartela etxez-etxe banatuko den programaren irudia izango dela. Nagorerena berriz, herrian eta inguruan egingo den kartelaren ikurra izango da.

**Zorionak bioi!!**



# UDARI ONGIETORRIA

Euskal ohitura zaharrari jarraituz, bai Laukizen bai Jataben San Joan sua piztu zen egunik luzeena eta gauek laburrena ospatzeko. Batean sardinak, bestean txistorra eta bietan txokolatea denontzat eta jai giroa.



## LAUKIZKO ESKOLAKO IRTEERA

Urtero bezala, Laukizko eskolako umeak, gurasoak eta herriko hainbat, txangora joan ziren pasa den ekainaren 5ean. Eskolako guraso elkarteak antolatuta Udalaren dirulaguntzarekin, aurten Azpeitiaraino joan zaizkigu eta argazki polit hau bidali digute. Seguru gaude primeran pasa zutela!



## LIBURU EGUNA LAUKIZEN

Ohitura bihurtu denez apirilaren 23an, Liburu Eguna ospatzeko, Laukizko Liburutegiak Trukemerke egitera gonbidatu gintuen.

Pozgarria da ikustea, herritar batzuentzat ohitura bihurtu dela egun berezi honetan etxean dituzten liburuak hartu eta liburutegira hurbiltzea trukatzeko asmoz, baina poz gehiago hartzen dugu denok herritar berriak ikustea lehenengo aldiz euren liburuak trukatzen!

Liburutegitik eskerrak eman nahi dizkizuegu guztioi, zuek gabe ezin izango zelako posiblea ospatzea gure herrian Liburu Eguna.



## NITXO BERRIAK MARURI-JATABEKO KANPOSANTUAN

Maruri-Jatabeko kanposantuan hilobirik ez izateagatik, beharrezkoa suertatzen da horma-hilobi sorta bat egitea. Horregatik laister hasiko du Udalak lanak kontratatzekeo prozedura.

Lehen bezala, horma-hilobi hauek, nahiz eta Udalarenak izan, Administrazio Emakidaren bidez, laurogei eta hamar urtez emango dira, herriarekin loturaren bat daukaten eta uztaillaren 31n baino lehenago idatziz eskatzen duten pertsoneri. Horma hilobi bakoitzaren prezioa 1.000.- eurokoa izango da.

Hala ere, eskari nahikoa ez izatekotan, bertan behera utziko da proiektua, gaurko egoera ekonomikoak ezinezko egiten duelako Udalak bakarrik horrelako lanak burutzea.

Beraz, interesa izanez gero, jo ezazu udaletxera informazio gehiago jasotzeko.

### AGENDA

#### Maruri-Jatabeko jaiak:

Abuztuan. Erne egon kartelei!

#### Laukizko jaiak.

Irailaren amaieran.

#### Maruri-Jatabeko

#### mendi martxa:

Irailaren 12an

Irailaren hirugarren astean hasiko gara berriro Liburutegiko ekintzekin. Erne ibili!!

### ALE HONETAN PARTE HARTU DUTE

MARIA FERNANDEZ  
GEMA LARRAZABAL  
SAIOA SANZ



MARURI-JATABEKO  
UDALA



LAUKIZKO  
UDALA



Bizkaiko Foru Aklundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



euskara bizberritzeko plan nagusia  
plan general de promoción del uso del euskera



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA

## ABESTU GEUGAZ

### Noizbait (Ken zazpi)

Isiltasunak non zauden galdetzen dit noiznahi.

Zure izena mila aldiz oihukatuz, noiznahi

Egutegiko orriak aurpegiratu dit,

zenbat gau pasatu dut

itzarrik zu ez zaudenetik.

Aska gaitezan malkoz esan zenidan,

Noizbait izango dugu gure aukera,seguru,

noizbait,geroztik nora ezean

barneko ekaitzetan

arraunean ibiltzen naiz

zure mezu baten zain.

Bila nazazu,

izar bako gauetan,

gida nazazu

zure itsasertzera.

Noizbait...

Iritsiko naiz

argiak jarraituz,

iritisiko naiz

berriz saiatuz, noizbait.

Itzuliko naiz,

aurkituko zaitut,

begiak itziz gertu sentituz

Noizbait...

Bilatu nazazu

argi ontziaz.

Gidatu nazazu,

itsasertzera.

Iritsiko naiz argiak jarraituz.

Iritsiko naiz berriz saiatuz,

noizbait.

Itzuliko naiz,aurkituko zaitut.

Begiak itziz gertu sentituz, noizbait...